

## KONTROL MOZIOA

### GLOBAL FORUM ON MODERN DIRECT DEMOCRACY DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko ekainaren 20an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Demokrazia Zuzenaren Mundu Foroa 2008tik Initiative and Referendum Institutoak (IRI) bultzatutako kongresua da, helburu nagusi munduko herrialdeetan demokrazia zuzena bultzatzea duena.

Hartara, 2012. urtean, Donostiako Udaleko ordezkari politiko eta teknikoek Montevideon (Urugai) gauzatutako Mundu Foroan parte hartu zuten eta, gainontzeko herrietako esperientziak trukatzear gain, Donostiako Partaidetza Eredua azaldu zuten munduko instituzio, elkarte eta aditu askoren aurrean. Gerora, 2014an, IRIren eskutik Udaleko ordezkariok Suitzako demokrazia zuzeneko sistema ezagutzeko aukera izan genuen. Eta aurten bertan, ordezkari teknikoek Tunisiako Foroan parte hartu zuten eta bertan, Kultur Hiriburutzaren testuinguruaren baitan, Donostia aurkeztu zen 2016an Mundu Foroa jasoko zuen hautagaitzat ondorengo programarekin: demokrazia zuzenaren lurraldeko eta tokiko eremua, herri-mugimenduen ekarpena demokrazia zuzenari, herritarren eta herrien erabakitzeko eskubidea eta demokrazia zuzena aldaketa politikorako motor gisa. Tunisiako parte-hartzaileek Donostiako hautagaitza berretsi zuten.

2015eko irailean galdera zuzendu genion Udal-gobernuari ea foroaren antolakuntzarekin jarraitzeko asmoa zuen, eta erantzun zitzaigun baloratzen ari zirela. Azaroan, interpelazioa sartu genuen zentzu berean eta orain bai, erantzun zitzaigun konpromisoa hartuko zuela Mundu Foroa 2016an Donostian egiteko. Hori dela eta, EH Bildutik 2016ko otsailaren 11n, publikoki eta gutun bidez geure laguntza eskaini genuen.

Udal-gobernuaren aldetik, ordea, ez genuen erantzunik jaso. Ondoren, 2016ko apirilaren 21eko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuran, Partaidetzako zinegotzi ordezkariak Global Forum-aren programa aurkeztu zuen laburki kontseiluko kideen aurrean, eta ikusi ahal izan zuten herrien erabakitzeko eskubidea programatik kendu zela. Noiz eta 2014an 150.000 herritar baino gehiagok, giza-kate erraldoi baten bitartez, erabakitzeko eskubidea aldarrikatu zuten eta aurten bertan, ekainaren 5ean, Euskal Herriko 34 udalerritan eskubide honen inguruan milaka herritarrek ariketa demokratikoa egin zuten, Donostian ere, bozketaz ekimen sinbolikoa egin zela.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Testuinguru honetan, ez dugu ulertzen zergatik forotik erabakitzeko eskubidearen gaia kentzeko erabakia hartu den eta gure ustez, bai donostiarren bai herritarren kezken artean dago. Ekainaren 20ko batzordean zinegotzi ordezkariak ez zuen azalpen handiegirik eman erabaki honen arrazoiez.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

### KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari 2016an Donostian gauzatuko den Demokrazia Zuzen Modernoaren inguruko Mundu Foroan, programaren edukien oinarritzko *imput*-en artean, berreskura dezala herrien erabakitzeko eskubidea eta antola daitezela gai honen inguruko hitzaldi eta tailerrak.

Donostian, 2016ko uztailaren 15a

Axier Jaka Goikoetxea  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia